

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

KANPEZUKO UDALA

Behin betiko onestea autokarabanak eta etxebizitza ibilgailuak aparkatu eta gaua emateari buruzko udal ordenantzaren aldaketa

Udalbatzak, 2022ko irailaren 20an egindako ohiko bilkuran, behin-behineko onespena eman zion Santikurutze Kanpezun horretarako jarritako aparkalekuan autokarabanak eta etxebizitza ibilgailuak aparkatu eta gaua emateari buruzko udal ordenantzaren aldaketari. Aldaketa horri behin-behineko onespena ematen dion erabakia jendurrean egon den bitartean haren aurkako erreklamaziorik aurkeztu ez denez gero, behin-behineko erabaki hori behin betiko erabaki bihurtu da, bat etorritoki Ogasunak arautzen dituen uztailaren 19ko 41/1989 Foru Arauaren 16.3 artikulua eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 49.c) artikulua xedatutakoarekin.

Foru arau horren 16.4 artikulua eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 70.2 artikulua xedatutakoa betez, oso-osorik ematen dira argitara aldaketen testuak:

6. artikulua. Zerbitzuguneak

Autokarabanak udalaren jabetzako zerbitzugune eta birziklatze guneetan sartu eta han eskaintzen diren zerbitzuak erabiltzeagatik ordaindu beharreko prezio publikoa, bestalde, ordenantza honen tarifen eranskinean dago jasota.

Ur grisak eta beltzak husteko autokarabanen aparkalekuan sartzegatik prezio publikoa 1,5 euro izango da, eta 30 minutu izango dira horretarako. Egiteko hori betetzeko denbora amaitutakoan, erabiltzaileak 1,5 euro ordaindu beharko ditu gehiegizko 30 minutuko.

Elektrizitatearen erabileraren prezio publikoa honako hau izango da: 1 euro/1 ordu, 2 euro/2 ordu, 3 euro/3 ordu, 4 euro/4 ordu, 5 euro/5 ordu, 6 euro/24 ordu.

Eranskina

Tarifak

5 euro eguneko.

1,5 euro/30 minutu urak husteko.

Elektrizitatearen tarifak

1 euro/1 ordu.

2 euro/2 ordu.

3 euro/3 ordu.

4 euro/4 ordu.

5 euro/5 ordu.

6 euro/ 24 ordu.

Santikurutze Kanpezu, 2022ko azaroaren 15a

Alkatea

IBERNALO BASTERRA TXASKO